



BAZTANGO UDALA
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN

2019ko MAIATZAREN 17ko EZOHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA DE 17 DE MAYO DE 2019

Baztango Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2019ko maiatzaren 17an, 8:00etan, Baztango Udaleko Osoko Bilkura bildu da, ezohiko bileran, Joseba Otondo Bikondoa alkate jauna buru dela, eta zinegotzi hauek etorri dira: Mikel Ortega Arraztoa, Maite J. Iturre Llano eta Juan Cruz Iriarte Bañez, EH-BILDU taldekoak; Begoña Sanzberro Iturriria, María Carmen Iribarren Iribarren eta Jose Javier Aguirre Azcarraga UPN taldekoak; Joseba Moreno Videgain GEROA BAI taldekoa; Florentino Goñi Tellechea eta Iñigo Iturralde Eliceche, BAZTANGO EZKERRA taldekoak; eta Alejandro Martín Ibarra, BAZTAN AUZOLANEAN taldekoa.

Ez dira bertaratu: Ruben Ciganda Sanz (Geroa Bai) eta María Isabel Olave Ballarena (UPN).

Idazkari lanetan Ainara Velez Ara aritu da.

Alkatearen aginduz bilkura hasi da.

1.- UDALEKO 2019ko AURREKONTUAREN 12. ALDAKETA. KONTU-HARTZAILEAREN 5. TXOSTENA.

Kontu-hartzaileak prestatutako aurrekontu aldaketa azaldu da, saio honetako espedientean dagoena (5. zenbakiduna).

Aurrekontu aldaketa aho batez onetsi da.

2.- UDALEKO 2019ko AURREKONTUAREN 13. ALDAKETA. KONTU-HARTZAILEAREN 6. TXOSTENA.

Kontu-hartzaileak prestatutako aurrekontu aldaketa azaldu da, saio honetako espedientean dagoena (6. zenbakiduna).

Aurrekontu aldaketa aho batez onetsi da.

En la Sala de Sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 8:00 horas del día 17 de mayo de 2019, se reúne, en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, presidido por el alcalde Joseba Otondo Bikondoa, y con la asistencia de los/las siguientes concejales/as: Mikel Ortega Arraztoa, Maite J. Iturre Llano y Juan Cruz Iriarte Bañez del grupo EH-BILDU; Begoña Sanzberro Iturriria, María Carmen Iribarren Iribarren y José Javier Aguirre Azcarraga del grupo UPN; Joseba Moreno Videgain, por el grupo GEROA BAI; Florentino Goñi Tellechea e Iñigo Iturralde Eliceche, del grupo BAZTANGO EZKERRA; y Alejandro Martín Ibarra, del grupo BAZTAN AUZOLANEAN.

No han asistido: Rubén Ciganda Sanz (Geroa Bai) y María Isabel Olave Ballarena (UPN).

Actúa como secretaria Ainara Velez Ara.

El alcalde da comienzo a la sesión.

1.- MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA Nº 12 AL PRESUPUESTO 2019. INFORME DE INTERVENCIÓN Nº 5.


Explicado el informe elaborado por Intervención, adjunto al expediente de la presente sesión (nº 5).

La modificación presupuestaria es aprobada por unanimidad.

2.- MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA Nº 13 AL PRESUPUESTO 2019. INFORME DE INTERVENCIÓN Nº 6.

Explicado el informe elaborado por Intervención, adjunto al expediente de la presente sesión (nº 6).

La modificación presupuestaria es aprobada por unanimidad.



GALDE-ESKEAK

Begoña Sanzberrok galdetzen du ea zein den Udalaren asmoa Nafarroako Gobernuko Abeltzaintzako azpiegituren diru-laguntzei dagokionez.

Juan Cruz Iriartek erantzuten dio deialdia prestatzen ari direla, badaudela barrera kanadiar batzuk, memoria prestatzen ari direla.

Begoña Sanzberrok aipatzen du badagoela deialdi bat komertzioa suspertzeko eta ea eskatu behar den galdetzen du.

Maite Iturrek erantzuten dio deialdi honetan ezetz.

Begoña Sanzberrok galdetzen du ea zer egin behar den inbertsio turistikoaren dirulaguntzarekin.

Maite Iturrek erantzuten dio azken bi urteetan Xorroxineko gunearentzat eskatu izan dela dirulaguntza eta egin nahi zen aparkamenduari buruz azken berriak ematen ditu.

Begoña Sanzberrok adierazten du bazegoela proiektu bat bideen inguruan ibilbide bat egiteko, kartelak prest izanzen zituztela jakinarazi zitzaiela, baina legislatura bukaerara ailegatu direla eta ez daudela denak prest eta aurreikuspena zein den galdetzen du.

Maite Iturrek erantzuten dio herri batzuetan jarri direla, baina ez direla herri guztietara ailegatu.

Begoña Sanzberrok Aroztegiko bi epaiak beraiei trasladatzea eskatzen du.

Joseba Otondok erantzuten du Batzar Nagusiak bi auzibide eman dituela eta bien berri emanen diela jakinarazten du, jakinarazpen ofizial bezala baloratu beharko duela adierazten du.

Jarraian, alkate jaunak bilkura amaitutzat eman du, 8:30ean. Idazkari gisa, horren guztiaren fede ematen dut.

RUEGOS Y PREGUNTAS

Begoña Sanzberro pregunta cuál es la intención del Ayuntamiento respecto a la convocatoria del Gobierno sobre las Infraestructuras Ganaderas.

Juan Cruz Iriarte le responde que están preparando la convocatoria, que hay alguna barrera canadiense y están preparando la memoria.

Begoña Sanzberro pregunta por otra de las convocatorias existentes, la revitalización comercial y pregunta si se va a llevar a cabo alguna actuación.

Maite Iturre le responde que en esta convocatoria no.

Begoña Sanzberro pregunta qué actuaciones se van a llevar a cabo con las subvenciones turísticas.

Maite Iturre responde que en los dos últimos años se ha solicitado para la zona de Xorroxin y explica los últimos detalles sobre el aparcamiento que se había planteado.

Begoña Sanzberro comenta que en su momento existía un proyecto sobre un recorrido de los caminos, que se les hizo saber que habían colocado todos los carteles, pero han llegado al final de la legislatura y no están todos, pregunta cuál es la previsión.


Maite Iturre le responde que se han puesto algunos carteles, pero no han llegado a todos los pueblos.

Begoña Sanzberro solicita que se les trasladen las dos sentencias de Aroztegia.

Joseba Otondo responde que la Junta General les ha informado acerca de las dos y deben valorar el hacer una notificación oficial.

Seguidamente por el Sr. alcalde se levanta la sesión, siendo las 8:30 horas, de todo lo cual, como secretaria doy fe.

ALKATEA
EL ALCALDE



IDAZKARIA
LA SECRETARIA

